



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere”

2025eko otsailaren 23a
Urteko 7. igandea (C)

Lukas 6, 27-38.

«Baina zuei, entzuleoi, hau diotsuet: **Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak**, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari, ez ukatu soinekoka ere. Eskatzen dizun edonori, eman, eta zeurea kentzen dizunari, ez bihurrarazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei. Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere maite dituzte beren maitaleak. Eta ongi egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue ongi, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere aurreratu ohi diote elkarri, beste hainbeste hartzekotan. Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin ongi eta eman maileguz ordainari begiratu gabe: handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita bera esker txarreko eta gaiztoentzat. Izan zaitezte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala. Ez gaitzetsi inor eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu inor eta Jainkoak ere ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta Jainkoak ere barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

“Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak”

LEHENENGOA

Jose Antonio Pagola

Jainkoari min ematen dio jendearen sufrimenduak. Horregatik, gizakiarekiko lehen erreakzioa errukia da. Jainkoak ez du inor sufritzen ikusi nahi. Ezta Jesus ere. Lehenengo gauza sufrimendua ezabatzea edo arintzea zen. Bekatuak min ematen badio, bekatuak sufriarazten duelako edo jendeak sufritzen jarrai dezan uzten duelako da.

Horregatik, errukia ez da bertute bat gehiago. Jainkoaren antza izateko modu bakarra da, Jesus bezala izateko eta bera bezala jokatzeko modu bakarra. Jesusek bere jarraitzaileei eskatzen deutesen lehenengo gauza: "zure Aita errukiorra da".

Errukiak izan behar du, beraz, elizaren jardun osoa sorrarazi eta taxutuko duen jarrera. Elizatik egiten duguna maitasun errukiorretik sortzen ez bada, ia beti garrantzirik gabea izango da, eta arriskutsua ere bai, azkenean elizaren eginkizuna eta Jainkoaren benetako aurpegia desitxuratuko baititu.

Elizari, erakunde orori bezala, ez zaio beti erraza egiten errukiz erantzutea. Are gutxiago, errukiaren nagusitasunari beste ezeren gainetik eustea. Kosta egiten zaigu sufritzen duten pertsona zehatzen haragitan jartzea. Kosta egiten zaio «instituzional» deituriko elizari, eta kosta, berriz, «progresista» deritzon elizari.

Baina zer da eliza bat errukirik gabe? Nork entzungo du? Zein bihotzetan izango du oihartzuna haren mezuak? Zalantzarik gabe, gizarteak jarraibide moralak eta orientazio-printzipioak behar ditu, baina pertsona zehatzek ulertu egin behar dituzte beren arazoak, sufrimenduak eta kontraesanak. Nekez onartuko da errukiz beterik ez dagoen hitz bat.

Kontua ez da soilik kristauok "erruki-lanak" egitea, baizik eta eliza osoa Jainkoak gaurko gizonari eta emakumeari dion errukiaren eta maitasun errukiorraren adierazgarri izatea. Gizarte «gaixo» honek berehala behar du kritika- eta adore-hitza. Eta eliza ebanjeliotik komunikatu daiteke. Baina, ziur aski, entzuna izateko, eliza hurbil eta errukior batetik etorri behar du (inoiz ez, permisiboa), pertsonen zauri fisiko, moral eta espiritualekin sufritzen ikusiko dena.